

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2024ko otsaila / 346. zenbakia

www.oñati.eus  



Ordutegi aldaketak zine emanaldietan

Aurrerantzean zine-klub saioa 19:30ean hasiko da eta larunbatetan emanaldi bat gehiago (19:30) egongo da. Igande gauetan ez da saiorik izango.



Bizkarsoro

FILMA IKUSGAI
ASTEBURUAN

Zine emanaldien ordutegi berria estreinatuko den asteburu honetan Josu Martinez bilbotarraren **Bizkarsoro** filma ikusteko aukera izango dugu kultur etxeko zine aretoan, udaleko Kultura sailaren eta Korrikako herri batzordearen eskutik.

Donostiako Zinemaldian estreinatu zen film honek ikusmin handia piztu du eta orain arte ikusi ahal izan den herrietako aretoak lepo bete dira.

Martinezaren aurreneko film luzea da **Birkarsoro** (82') eta euskarak eta euskaldunek jasandako errepresioa du hizpide. Filma fikziozkoa izanik ere, benetako istorioak ekarri ditu pantaila aurrera, kontatzen baitu nola zigortzen zituzten herritarrak euskaraz hitz egite hutsagatik.

Zehazki, 1914tik 1982ra bitartean gertatzen diren bost istoriok osatzen dute filma. Ahozko lekukotzetan eta idatzitako testuetan oinarritutako fikziozko bost istorio dira, bost hamarkadetako kontakizuna. Bizkarsoro herria ez da existitzen eta, era berean, Euskal Herriko edozein herri izan daiteke.

Bizkarsoro filmaren emanaldia 'Korrika Kulturala'ren lehen ekitaldia izango da.

ORDUTEGI ALDAKETAK ZINE EMANALDIETAN

Aurrerantzean zine-klub saioa 19:30ean hasiko da eta larunbatetan emanaldi bat gehiago (19:30) egongo da. Igande gauetan ez da saiorik izango

Herritarren eskaerak eta emanaldi ezberdinetako ikusle kopuruen datuak aintzat hartuta, zine emanaldien ordutegian aldaketak egitea erabaki du udaleko Kultura departamentuak.

Zehazki, zine-klub saioan eta zine komertzialeko nagusien emanaldian egin dira aldaketak. Zine-Klub saioetara joaten diren hainbat ikuslekin emanaldien ordutegia aurreratzea eskatzen zutela ikusirik, inkesta bat egin zen ikusleen artean, eta gehienek horren aldeko hautua egin zutela ikusirik emanaldiak ordu erdi aurreratu eta 19:30etan hasia erabaki da.

Bestalde, zine komertzialari dagokionez, nagusien emanaldien ordutegia egokitu da. Hainbat herritarren eskaera kontuan hartuz, larunbatetan emanaldi bat gehiago (arratsaldeko 19:30ean) programatzea erabaki du Udalak. Emanaldi bat gehiago jarri edo beste batengatik ordezkatzeari izan da kasu honetan eztabaidagaia, baina igande gauetako saioetara jende gutxi joaten dela ikusita, emanaldi hau kentzea erabaki dute kultura saileko arduradunek.

Ostiral gaueko emanaldiak (jatorrizko bertsioan) eta astelehen arratsaldekoak (ikuslearen eguna) bere horretan mantenduko dira, eta baita haurren emanaldiak ere, larunbat eta igande arratsaldetan.

ORDUTEGI BERRIA

Otsailaren 1etik aurrera

ZINE-KLUBA

Ostegunak: 19:30

HELDUEN EMANALDIK

Ostiralak: 22:00 ⁽¹⁾

Larunbatak: 19:30 eta 22:00

Igandeak: 19:30

Astelehenak: 19:30 ⁽²⁾

HAURREN EMANALDIK

Larunbatak: 17:00

Igandeak: 17:00

(1) Jatorrizko bertsioan

(2) Ikuslearen eguna



Guztiona, guztion artean!

Ateak zabalik otsailaren 3an



Ondorengo bi asteetan eskola bisitatzeko aukera izango duzue.

Hitzordua eskatzeko 3 aukera daude:

1. QR kodea: hitzordurako galdetegia.
2. Eskolako korreoa: zuzendaritza@urgainerrekalde.eus
3. 943 89 91 34 telefonoa





INGURUMEN JARDUNALDIAK

XOMORROAK

animalia txikiak, ikuskizun handia

OÑATIKO
natur eskola

- » Xomorroak izango dira ingurumen jardunaldietako aurtengo protagonista nagusiak
- » Trantsizio energetikorako behar diren materialen mugak ere hizpide izango dira



Natur Eskola batez ere ikastetxeei zuzendutako zerbitzua bada ere, bertako lantaldea saiatzen da ingurumenarekin lotutako heziketa eta kontzientziazioa herrira ere zabaltzen, eta helburu horrekin antolatzen dituzte urtero Ingurumen Jardunaldiak.

Xomorroen mundura hurbildu eta hobeto ezagutzeko aukera paregabea izango dugu aurtengoan. Erakusketa, hiru hitzaldi eta irteera bat antolatu dituzte horretarako. Bizidunen espezie ezberdinetan ugariena eta anitzena da xomorroena. Gizaki bakoitzeko 200 milioi intsektu omen daude munduan. Xomorro motak, ezaugarriak, bizirauteko garatu dituzten mekanismoak, nola elikatzen diren, nola ugaltzen, zein funtzio duten ekosistemetan...Gauza interesgarri asko ikasteko aukera izango dugu. Hitzaldietako bat, kobazuloetako xomorroei (troglolioak) buruzkoa izango da.

MATERIALEN MUGAK. Trantsizio energetikoa burutzeko eta energia iturri berriztagarriez baliatzeko zein teknologia digitalak ekoizteko beharrezko diren materialen inguruan berba egiteko aukera ere egongo da hitzaldietako batean. Zehatzago esanda, mineralen muga fisikoen inguruan arituko da Jorge Torrubia ingeniaria.

EGITARAUA

ERAKUSKETA

Otsailak 12 - Martxoak 3
Egunero, 18:00-20:00
'XOMORROAK. Animalia txikiak, ikuskizun handia'
erakusketa ikusgai egongo da kultur etxean

Otsailak 12, astelehena
18:00
Erakusketaren inaugurazioa eta **'Arraio tximista!'** liburuaren aurkezpena

Otsailak 12, 22 eta 27
18:00
Bisita gidatuak

HITZALDIAK

Kultur etxean, 19:00

Otsailak 20, asteartea
'Intsektuen gainbehera'
Unai Ugalde, biologoa eta EHUko irakasle erretiratua

Otsailak 21, asteazkena
'Troglobios: esos bichos de las cuevas'
Carlos Prieto, zoologian doktorea eta EHUko irakasle erretiratua

Martxoak 1, ostirala
'Los límites materiales de la transición energética y digital' Jorge Torrubia, ingeniaria eta energia berriztagarrietan doktorea

IRTEERA

Otsailak 24, larunbata
'A la caza de los troglobios de Aizkorri'
Carlos Prietok gidatuta, Dordoka eta Iritegi kobazuloetara irteera. 10:00etan MUko aparkalekuan. Izen-ematea: natureskola@yahoo.es

ZINE-KLUBA

Otsailak 29, osteguna
'El chico y la garza'
Zuz.: Hayao Miyazaki

ZUHAITZ FERIXA

Martxoak 2, larunbata
Foruen plazan, 9:00

ZUHAITZ EGUNA

Martxoak 3, igandea
Foruen plazan, 10:00

ALOÑAKO LAGUNAK

Martxoak 10, igandea
Unaimendin, 10:00



Hitzaldi guztiak
"Oñatiko Udala"
Youtube-ko kanalean ikusgai



Natura ulertzen laguntzeko *goxokiak*

Oñatiko Natur Eskolako lantaldeak, udalaren laguntzarekin, **Arraio tximista!** liburua plazaratu du. Berria egunkariko **Mantagorri** ataleko 'Natur Txokoa'n zazpi urtez argitaratutako artikuluetako batzuk bildu dituzte bertan. Naturaren gai anitz ezagutzeko aukera ematen duten idatzi motzak dira, edozeinentzako ulergarri izan daitezkeen goxokiak. Helburua, beti bezala, natura ezagutzera ematea, ezagutzatik baitator estimua, eta, hortik, babesa.



Jabi Erostarbe ilustratzaileak gozotu ditu natura-goxokiak bere marrazki ederrekin, alaitasuna eta dibertimendua erantsiz batzuetan serioegiak izan daitezkeen azalpenei.

ARRIZABALAGA
Aroztegia

PAKITA
Altzariak

Berezaio Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

EGUR-LAN

AROSZTEGIA
LIMABAR S.A.L.

BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com

www.egur-lan.es

smk

san miguel kooperatiba

943 781 217

kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop



Oñatiko lehenengo ogia 50 urtetan

Oñatin ereindako gariarekin
egin du ogia Jabi Salasek

50 edo 60 urte izango dira garia gure landa paisaietatik ezkutatu zela, baina azken urteotan Gipuzkoako hainbat okinek abian jarri duten 'Hazitik Ogira' egitasmoari esker, zenbait baserritan garia ereiten hasi dira berriz ere, eta Oñatira ere iritsi da ekimena Jabi Salasen eskutik. Ortuzabala Elikadura Taldeko nekazarietako bat da Jabi, eta bertan ereindako gariarekin lehen ogi labekada egin du berriki, Oñatin landutako gariarekin egindako lehen ogia azken 50 urteetan, gutxienez.

Sortzez madrildarra da Jabi eta han bizi zela ere ba omen zuen ogia egiteko ohitura; labekada bat astean, etxerako eta lagunaren nahiz auzokideen artean banatzeko, eta dirutxo bat irabazteko beste.

Eta Oñatira iritsi zenean ere —2015ean etorri zen gure artera nekazaritzan edo abeltzaintzan lana egiteko gogoz— ogia egiten jardun zuen urte eta erdiz, eta arrakasta handiarekin, nonbait, azoka plazara eramaten zuen guztia saltzen baitzuen. Gero, Ortuzabala proiektuan murgildu zen burubelarri, eta alde batera utzi behar izan zuen ogigintza.

Baina orain dela bost urte, Gipuzkoako okin artisauek talde batek abian duen 'Hazitik Ogira' egitasmoaren berri izan zuen Jabi. *Biolur* eta *Neiker* elkarteekin laguntzarekin, garai bateko garia berreskuratzeko ahaleginean ari da Gipuzkoako okin talde bat, eta Britainia (Frantzia) nahiz Madrilgo hazi biltegietatik ekarritako gari-barrietate zahar batzuekin probak egiten ari dira hainbat nekazari ekologikorekin elkarlanean. Okintzaren prozesu osoa kontrolatzea, bertako gari barrietate bat lortzea eta gariaren inguruko tradizioa eta jakinduria berreskuratzea da egitasmoaren helburua.

LAU URTEKO LANA

Gipuzkoako okinen egitasmoak jakin-mina piztu zuen

» *Orain dela lau urte hasi zen garia ereiten Ortuzabala taldekoen baratzean, eta iazko udan 90 bat kilo gari jaso zituen*

» *Oñatiko baserriren batean gari aleak baleude, gustura jasoko lituzke, bertako bariatatea berreskuratzen saiatzeko.*

Jabirengan, eta haiekin harremanetan jarri eta haziak eskuratu ostean berak ere hazia ereitea erabaki zuen. "Bai, gainera, jende askok gogorarazten zidan ea ez ote nuen ogirik egin behar, eta, hala, Gipuzkoako okinen proiektuaren berri izan nuenean animatu egin nintzen neu ere. Ortuzabalako kideei galdetu nien ea lursail bat utziko zidaten garia ereiteko eta halaxe hasi nintzen orain dela lau urte. Lehen urteetako uztak txikiak izan dira eta jasotako gari aleak bertan erein ditut berriz ere, baina, iaz, proba batzuk egiteko adina gari bildu nuen eta, beraz, ogia egitea erabaki nuen, sinbolikoki bada ere, emaitza ikustearren, zapora aldetik, testura mailan...".



Garia jasotzen



Agustin Beitiaren aholku eta irakaspenak jarraitu ditu Jabik garia batzerakoan

(Jarraitzen du)



Garia jotzeko makina eta bertatik ateratako gari aleak

Jasotako garia ondo lehortu eta eguzkitan pittin bat txigortu ostean, Gipuzkoako okin taldeak utzitako makinarekin egin zuten gari-jotzea, eta bertatik ateratako aleak bahetu ondoren Olabarrietako errotan ixo eta irindu zuten. Iaz 250m² inguruko gari-soroa landu zuen Jabik eta 90 bat kilo irin jaso zuen.

Jasotako irina bahetu ostean Goiko Benta ostatuko sukaldean egin zuen Jabik lehenengo ogi labekada. Bi ogi mota —erdi integrala batetik, eta mahaspasa eta intxaurdun ogi dultzea, bestetik— eta bizkotxoak egin zituen Jabik, eta oso goxoak atera omen ziren, Goiko Benta bertan egindako dastaketan bildutakoen iritziz. "Ohi baino ilunxoagoa atera da ogia, baina zaparez oso goxo dago, eta ogi oreka egiteko ere oso egokia da", azaldu digu Jabik. ■



Goian, Olabarrietako errotako irudiak, gari aleak ixoten. Eskuman, Goiko Benta ostatuan egindako dastaketako irudia.



"Ederra litzateke Oñatin garai batean ereiten zen gariaren haziak berreskuratzea"

Oraingoz etxerako eta ingurukoentzako ogia egiten jarraitzeko asmoa du Jabik, baina, etorkizun batean, komertzializatzeko aukera ere ez du baztertzen.

Bien bitartean, garia ereiten eta esperimentatzen jarraitzeko asmoa du eta, ildo horretan, dei bat ere luzatzen du. "Litekeena da baserriren batean gordeta egotea oraindik garai batean Oñatin ereiten zen gariaren haziak, eta, hala balitz, interesgarria litzateke hazi horiek berriro erein eta partekatzeko aukera edukitzea. Ortuzabala taldean prest gaude lan hori egiteko, harremanetan gaudelako hazien laborantza eta ekoizpenean diharduten elkarteekin. Beraz, norbaitek hazirik gordeta balu, biziki eskertuko genioke gurekin harremanetan jartzea".

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

ANE MERTZERIA



- Josteko zerak
 - Lentzeria
 - Umeen jantziak
- Kale Barria, 54 OÑATI

Matrikulazioa 2024

Otsailaren 7tik 23ra



Txantxiku
Ikastola



Zatoz gu ezagutzera Otsailean

2 Bilera informatiboa eta Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako eremuak eta dinamika ezagutu **egubakoitza**

7 Neurogarapenaren inguruko **hitzaldia** Feli Oregikin. 0-2 urtekoei zuzendua. **eguztena**

16 Bigarren Hezkuntzako eremuak eta dinamika ezagutu **egubakoitza**

20 Mugimendu askearen inguruko **hitzaldia** Maier Etxebarriarekin. HH 0-2 urte. **martitzena**

Ekintzak
17:00etan
izango dira

Dhaguel-eko 'Oñati' eskolak 160 haur hartzen ditu egunero

» Oñatiko Misio Taldeak haurrentzako eskola bat eraiki du Ginean, eta orain emakumeei zuzendutako lanbide heziketa zentro bat prestatzen ari da

» Otsailaren 13an, Inauteri asteartea, herriko plazan egingo den txokolatadan biltzen den dirua Dhaguel-eko elkartasun proiektura bideratuko da



'OÑATI' IKASTETXEA. 5-12 urte arteko neska-mutikoentzako eskola eraiki du parrokiako Misio Taldeak Gineako Errepublikako (Afrika) Dhaguel herrian.



Otsailaren 13an, inauteri asteartea, txokolatada solidarioa egingo da herriko plazan (18:00) eta bertan batzen den dirua Oñatiko Misio Taldeak Gineako Errepublikan (Afrika) duen elkartasun proiektura bideratuko da. 2019an abiatu zen proiektu honen bidez 5-12 urte arteko haurrentzako eskola bat jarri da martxan Dhaguel herrian eta, orain, 12-16 urteko neska gazteei zuzendutako jostintza tailer bat eraikitzen ari dira. Misio Taldeko ordezkari Manu Egañak eta Oñatin bizi den Adama ginearrak eman digute proiektuaren berri.

2019an jarri zenuten martxan Gineako elkartasun proiektua eta, dagoeneko, lehen fasea amaituta dago, ezta?

Bai, argazkietan ikus daitekeen moduan, 5 eta 12 urte arteko haurrentzako eskola bat eraiki dugu Gineako (Afrika) Kindia eskualdeko Dhaguel herrian.

Oñatin bizi diren ginearren eskariz jarri genuen martxan proiektu hau eta beraiek lortutako lursailean eraiki dugu eskola, Oñatiko laguntzarekin. 2021/22 ikasturteaz geroztik dago martxan eskola eta egunero 160 bat neska-mutiko joaten dira bertara, alfabetatzera eta oinarriko ezagutzak jasotzera.



▲ Afrikako mendebaldean dago Gineako Errepublikak eta bertako Kindia eskualdeko Dhaguel herrian ari da gauzatzen bere proiektua Oñatiko Misio Taldea.

▼ Beheko argazkian ikus daitekeen moduan neska gazteei zuzendutako tailer-eskola ere ia amaituta dago. Barrualdetik ekipatzea falta da eta aurtengo udarako prest egongo da.



▲ Manu Egaña, Misio Taldeko kidea, eta Adama, Oñatin bizi den ginearra



Orain bigarren fasean murgilduta zaudete. Zein da helburua eta zertan dago?

Bigarren esku-hartze honetan 12-16 urte arteko emakume gazteengan jarri nahi izan dugu fokua. Emakumeen egoera bereziki zaila da Dhaguel-en, beste leku askotan bezalaxe. Patriarkatuaren ondorioz neska gazte hauen aukera ia bakararra gazterik ezkontzea izaten da, eta proiektu honen bidez beste irtenbide bat eskaini nahi diegu. Ofizio bat ikasteko aukera eskaini nahi diegu, ekonomikoki independenteak eta beraien etorkizunaren jabe izateko aukera izan dezaten. Horretarako, jostintza tailer bat prestatzen ari gara. Eraikina ia amaituta dago eta barrutik ekipatzea falta da. Uda parterako prest egotea espero dugu.

Zenbateko kostua dute bi esku-hartze horiek eta nola lortzen duzue finantzazioa?

Guztira, 100.000 euro inguruko kostua dute bi proiektuek, eta

horri aurre egiteko honako diru iturriak ditugu: Misio Taldeak berak dituen baliabideak, ekintza ezberdinen bidez (txokoladak, kontzertuak, afari solidarioak, antzerkiak...) lortzen dituenak, edo parrokiari egiten zaizkion dohaintzen bidez; Oñatiko udalak GKE-ei ematen dizkien dirulaguntzak; enpresek, batez ere ULMAK, egiten dizkiguten diru ekarpenak; eta Elizaren inguruko beste erakunde eta laguntza programa ezberdinetatik lortzen ditugunak.

Nola moldatzen zarete hain urrutiko dauden proiektuak koordinatzeko?

Misio Talde bezala proiektu batean murgiltzeko baldintza edo gakoa da hango jendea izatea benetako protagonistak. Guk proiektuari forma ematen eta dirua biltzen lagundu dezakegu, baina benetako protagonistak beraiek dira.

Kasu honetan, Oñatin bizi diren ginearren eskariz jarri genuen abian proiektu hau; *Association*

pour le Developpement de Dhaguel (ADD) elkartea sortu zuten, eta bion arteko elkarlana da proiektua aurrera ateratzeko gako nagusia.

Amerikan, Asian, Afrikan... hainbat lekutan burutu izan dituzue elkartasun proiektuak. Zeren arabera aukeratzeko dituzue?

Historikoki Misio Taldearen egitekoa izan da munduan zehar zeuden herriko misiolariak babesa ematea. Baina hauek urrituz joan diren heinean, geure esku geratu da proiektuak aukeratu eta bultzatzeko ardura.

Illo horretan, garbi daukagu proiektuen helburua izan behar dela biztanleriaren garapena sustatzea eta errealitatea eraldatzea. Gure helburua ez da hara dirua bidaltzea, banatzea eta denak berdinduz jarraitzea.

Halako laguntzak ere behar izaten dira, noski, emergentzia edo larrialdi egoeratan, baina egoera koiunturalak izaten dira. Estrukturalki begiratzen badugu, helburua da egoera eraldatzea, poliki poliki, bai, baina norabide horretan laguntzen badu, aurrera; bestela, birpentsatu egin beharko da proiektua.

Eskolak eraikitzea ondo dago, baina, gero, mantendu egin behar da eta aurre egin behar zaie funtzionamendu gasuei.

Horixe da, orain, gure erronka. Bertako agintari-arduradunekin hitz egin nahi dugu, ea bere gain har dezaketen irakasleen kostua eta eskolaren mantenu gastuak, gure indarrak beste gauza batzuetara edo beste inbertsio batzuetara bideratu ahal izateko.

Polita litzateke, baita ere, bihar edo etzi Oñatiko gazteak joan ahal izatea bertara, eskolan laguntzera, adibidez. Egia esan, adar asko izan ditzakeen proiektua da eta, azken batean, horixe da helburua, alegia, zubiak eraikitzea, elkarlanean jardutea eta elkarrenganik ikastea. ■

Dhaguel-eko neska gazte askoren aukera ia bakarra gazterik ezkontzea izaten da, eta proiektu honen bidez beste irtenbide bat eskaini nahi diegu. Ofizio bat ikasteko aukera eman nahi diegu, ekonomikoki independenteak eta beraien etorkizunaren jabe izateko aukera izan dezaten



MEMORIA TAILERRAK

Burua bizi eta arin mantentzeko

Pake Leku elkartean bizpahiru urte daramatzate memoria lantzeko tailerra antolatzen. **Lagun Leku** elkartean ere otsailarekin batera hasiko dira. Izen-ematea zabalik dago.

Jubilatuaren elkarteetan gero eta ohikoagoa da memoria lantzeko tailerrak antolatzea. Pake Lekun orain dela hiru urte hasi ziren eta Lagun Lekun ere taldea osatu bezain pronto hasiko dira. Pake Lekuko tailerra bezala, Sara Alava arrasatearrak gidatuko du Lagun Lekukoa ere. Berak eman dizkigu xehetasunak.

Zer dira Memoria Tailerrak?

Garuna edo burua aktibo eta sasoiari mantentzen laguntzen duen aktibitate bat da. Astearen behin elkartzen gara eta ariketa ezberdinak egiten ditugu bertan,

baina garbi geratu behar da hau ez dela eskola bat; ez dauka zerikusirik horrekin. Hemen ez da ezer demostratu behar, eta lehenengo helburua da ondo pasatzea. Ariketak egiten ditugu, bai, burua lanean jartzeko, baina jendeak ondo pasatzen du, eta hori da helburu nagusia.

Zein da saioen dinamika? Zer egiten duzue?

Ordu eta erdiko saioak izaten dira. Normalean, taldeko joko edo dinamika batekin hasten gara eta, ondoren, bakarkako ariketa edo fitxak egiten ditugu.

▲
Pake Lekuko memoria lantzeko tailerrean 24 lagun batzen dira astero



SARA ALAVA
Gizarte Hezitzailea

» Askotan entzuten dugu ibiltzea komeni dela fisikoki hobeto egoteko; bada, burua lantzen badugu, eguneroko bizitzan askoz biziago eta arinago egongo gara

Bakarkakoak dira, baina elkarren artean egiten ditugu, giro onean, inor estutu barik, eta amaieran denon artean zuzentzen eta erreparatzen ditugu.

Nolako ariketak dira?

Letra, zenbaki edo marrazkiekin egiten diren ariketak dira, arreta edo atentzioa jartzea eskatzen dutenak, eta hori oso inportantea da memoria lantzeko. Kalkulua, lengoaia, orientazioa... lantzeko ere balio dute. Dauzkagun gaitasun kognitibo guztiak lantzea da helburua, azken batean.

Ariketa mota asko daude eta saiatzen naiz saio bakoitzean ezberdinak egiten, eta, batez ere, entretenigarriak izaten.

Bizpahiru urte daramatzazu Pake Lekuko memoria tailerra gidatzen. Zer moduz?

Oso ondo. Oso giro ona egoten da eta, esan dizudan moduan, hori da lehenengo helburua, ze, bestela, jendea ez litzateke etorriko. Ariketak egiteaz gain, bakoitzaren eguneroko kezkatxoak eta memoriarekin ditugun

MEMORIA TAILERRA Lagun Leku elkarte

Otsailarekin batera memoria lantzeko tailerra jarriko dute martxan Lagun Leku elkarte. Sara Alavak gidatuko du tailerra eta ostiraletan izango da, 17:00etatik 18:30etara. Interesatuak Lagun Leku elkarte bertan edo San Lorentzoko Arantxa okindegian eman dezakete izena. Prezioa: 19€/hileko.

arazotxoei aurre egiteko estrategiak partekatzen ditugu eta oso aberasgarria izaten da.

Emakumezkoentzat bakarrik al da?

Ez, argazkia ikusita hala ematen du, baina gizonezkoren bat edo beste ere badago taldean. Hala ere, gehienak emakumeak izaten dira.

Gutxieneko ikasketa maila bat behar da tailer hauetan parte hartzeko?

Nahikoa da irakurtzen jakitea eta oinarrizko ariketak (batuketak eta kenketak) egiten jakitea. Gogoia edukitzea da inportanteena.

Lagun Leku elkarte ere jarri nahi dute martxan memoria tailerra. Nori gomendatuko zenioke?

Ondo pasatzeaz gain, bere burua eta gaitasun kognitiboak aktibo eta sasoiari mantendu nahi dituzten guztiak. Askotan entzuten dugu ibiltzea komeni dela gorputza zaindu eta fisikoki ondo mantentzeko. Ba, gorputza lantzen dugun moduan, garuna edo burua ere landu egin behar da, eta hori egiten badugu, eguneroko bizitzan askoz biziago eta arinago edukiko burua; bestela, gehiago kostako zaigu gauzak gogoratzea, hitz egokiak ahaztzea, gauzak behar bezala azaltzea.... Beraz, animo!

Hezkuntza legeri buruzko hitzaldia, Astintzen dinamika abiatzeko

Herriko hainbat gizarte eragilek osatutako elkargunea da **Astintzen**, eta Euskal Herriko testuinguru soziopolitikoan gertatzen ari diren eta interes kolektibokoak diren gaiak eta problematika ezberdinen (pentsioak, etxebizitza, osasuna, adierazpen askatasuna...) inguruko hitzaldiak antolatzen ditu, horien inguruko hausnarketa egiteko, erronken aurrean alternatiba jasangarriak proposatzeko, eta jardun politiko ezegokiak (ustelkeria, ate birakariak, pribatizazioak...) salatuz.



HEZKUNTZA LEGEA

Hasteko, Hezkuntza legeri buruzko hitzaldia antolatu dute: **'Herri akordiotik Hezkuntza Legera. Zer gertatu da? Nondik jo?'**. **Otsailaren 7an** izango da, kultur etxeko zine aretoan (19:00) eta bi tertuliakide izango dira bertan, dinamizatzaile batek gidatuta: Olatz Egiguren, Sortuko herrigintza idazkaria eta urte luzez euskal hezkuntzagintzan aritutakoa, eta Ikoitz Arrese, EH Bilduko hezkuntza idazkaria, Hezkuntza Legearen prozesuan buru-belarri ibili dena. Hitzaldiaren helburua izango da Hezkuntza Legearen prozesuan izan diren argi-ilunak azalartzea eta etorkizuneko erronkak finkatzea. Gai korapilatsua eta interesgarria.

'Debagoiena Geuretik Loratzen' dinamika abian

Debagoieneko EH Bilduk 'Debagoiena Geuretik Loratzen' dinamika jarriko du abian otsailean. Koalizio abertzaleak instituzioetatik zien herrigintzatik bultzatutako proiektu eraldatzaileak ezagutzera ematea da helburua.

Lehenengo hitzordua **otsailaren 24an** izango da, Oñatin, eta energiarekin lotuta martxan dauden proiektuak hobeto ezagutzeko aukera egongo da, Ur Jauzietara bisita eginez eta Onaro proiektua ezagutzuz. Hilero lanketa bat egingo dute zaintza eta elikadura burujabetza bezalako gainen inguruan.

Oñatiko emakume-mojen izaera, bizimodua eta ekarpena ikuspegi feministatik

Selma Huxley Barkham ikerketa bekaren bitartez herriko hiru moja-komunitateetako antolaketa moduak eta herriari egindako ekarpena aztertu dute Jone Arrazolak eta Itsaso Maniasek



Oñatiko emakumeek historian zehar herriari egindako ekarpena azterzea eta balioan jartzea da Udalak eman ohi duen **Selma Huxley Barkham** ikerketa bekaren helburua, eta, hain zuzen, beka hori baliatu dute Itsaso Manias Muñoz eta Jone Arrazola Maiztegi oñatiarrek herriko emakume-mojen izaera, bizimodua eta ekarpena arakatzeko ikuspegi feminista batetik.

Horretarako, herriko hiru moja-komunitateak —Santa Ana eta Bidaurretako klaratarrenak, eta Santa Eskolastikako beneditarrenak— aztertu dituzte, hiru ikuspuntutatik: IZAERA (mojen jatorria eta testuinguru soziologikoa); BIZIMODUA (komunitate bakoitzeko antolaketa modua); eta herriari egindako EKARPENA (emakume horien lanbideak eta egitura sozioekonomikoa).

IKERKETAREN ZERGATIA

"Ikuspegi feminista batetik, emakume-moja izatea menderakuntzarako bide bat da, botere-harremanen sisteman ertzeko posizioetara baztertuak izateko modu bat". Horixe da ikerketaren egileen abiapuntua, eta hortik abiatuta, ikuspegi zein praktika patriarkal eta feministak emakume-mojen komunitatean zein neurritan dauden azterzea izan da xedea.

"Mendez mende emakume-mojen iruditeria kolektibo jakin bat elikatu eta nagusitu da", azaldu dute egileek. "Iruditeria horrek askotan subjektu ahul gisa identifikatu izan ditu mojak; hau da, aita espiritualen edota apaizen jarraitzaile leial eta sutsuak bezala aurkeztu izan ditu; pobrezia, desberdintasunaren eta diskriminazioaren zaindaria eskuzabal eta apalak; sukaldari finak eta gozogileak. Hain zuzen, gozotasunarekin ere lotu izan da emakume-mojen izaera, eta ez alferrik gainera. Maskulinitatea, aldiz, Jainkoarekin lotu izan da, hots, bertutea eta egia absolutua duen figurarekin. Eta uste dugu mojen inguruan eraikitako iruditeria horrek emakume kongregazionista askoren alderdi apurtzaileenak ezkututzen dituela. Emakume horien anbizioa, autoritatea, lidergoa, adimena, erabakiak hartzeko ahalmena, lorpenak, autogestioa...".

GALDERAK

"Horrek guztiorrek, feminista moduan, erantzun gabe gelditu ezin diren galdera batzuk zabaltzen dizkigu", gaineratu dute egileek: "emakume gisa, nola praktika daiteke erlijio bat eta aldi berean feminismoaren ideiak defendatu? Bateriaezina al da fededuna eta feminista izatea? Posible al da gizakume eta emakumeen arteko desberdintasunei aurre egitea emakumeen ikusezintasuna sustatzen duen instituzio baten barruan?".

Galdera horiei eta beste batzuei erantzuna bilatzen lagunduko digu Arrazolak eta Maniasek egin duten lanak.



LIBURU AURKEZPENA ETA ERAKUSKETA

Selma Huxley Barkham bekaren bidez egindako ikerketa lanaren emaitza liburu batean jaso dute Maniasek eta Arrazolak, eta **otsailaren 12an** aurkeztuko dute Santa Ana antzokian, 18:30etan. Gainera, lanari buruzko erakusketa bat ere jarriko dute Santa Ana antzokiko sarreran, eta **otsailaren 12tik 25era** egongo da ikusgai: asteleheneetik ostiralera (16:30-19:30), larunbatetan (10:00-13:00 / 16:30-19:30); eta igandetan (11:00-13:00).





ETORRI
OÑATIKO LANBIDE HEZIKETA
EZAGUTZERA!
VEN A CONOCER LA FP DE OÑATI!

IKASKETA PRAKTIKOAK ETA EUSKARAZ

OINARRIZKO
ZIKLOA
GRADO BÁSICO

ERDI MAILAKO
ZIKLOAK
GRADOS MEDIOS

GOI MAILAKO
ZIKLOAK
GRADO SUPERIOR

DBH TITULUA
ESKURATZEKO AUKERA
OBTÉN EL TÍTULO DE ESO

ATEAK ZABALIK Puertas abiertas

OTSAILAK 7 FEBRERO 18:00

AURREMATRIKULA Pre-matrícula

MAIATZEAN MAYO



info@onati.net telf: 943 899 300

ESKER ONEK AITORTZA



AITORTZA JASO DUTENAK

80 ODOL EMATE

- Mercedes Sanz de Galdeano

60 ODOL EMATE

- Agurtzane Bengoa
- Isabel Yarza

50 ODOL EMATE

- Mikel Barrena

40 ODOL EMATE

- Lourdes García
- Milagros Querejeta

25 ODOL EMATE

- Mercedes Alcalá
- Jaione Anduaga
- Jose Francisco Zabarte

* Mikel Barrena falta da argazkian

Gipuzkoako Odol Emaileen Elkarteak urtero egin ohi du odola 25, 50, 75 edo 100 aldiz eman duten herritarrei esker ona adierazteko ekitaldia. Lehen eskualdeka egiten zen, baina pandemiaren geroztik herriz herri egiten da, eta aurreko kopuru horietakoren batera iritsi diren 9 herritarrek jaso dituzte dagozkien agiriak.

Aipagarria da, aurreko aitortza jaso duten 9 oñatiarretatik 7 emakumeak direla; beren egunerokoan odol galera handiagoa izanik, ez baita erraza 60 edo 80 odol emanalditara iristea. Emakumeek urtean hiru aldiz eman dezakete odola, gehienez.

Oñatiko emaleen elkarteko koordinatzaile Pili Irazabalek eskerrak eman zizkien guztiei urte hauetan zehar erakutsitako konpromiso maila handiagatik, eta dei egin zien, beste behin, herritarrei, bereziki gazteei, odola ematera. "Odola ematearen garrantziaz eta beharrez kontzientziatu behar gara" esan zuen; "odola behar-beharrezkoa da ebakuntzak egiteko, kimioterapia tratamenduetarako, botikak prestatzeko... bizitzak salbatzeko eta, beraz, odol emaleen elkarteko kide izateaz harro egon behar dugu".

TESTIGANTZAK



« 1996an hasi nintzen odola ematen eta, ordutik, urtero hiru aldiz eman dut. Jarraituko dut 70 urte egin arte, erreleborik ez dagoelako, baina onena litzateke gazteak animatzea. Oso pozgarria da zure odolarekin jende askori laguntzen diozula ikusteak. Konpromisoa hartu behar dugu.



« 2000. urtean hasi nintzen, asko pentsatu barik, eta oso konstantea izan naiz; urtean hiru aldiz eman dut. Aurreko esan didate ezingo dudala gehiago eman, arteria bat buxatuta dudalako, eta pena handia hartu dut. Baina, tira, 60 aldiz eman dut eta ez da gutxi. Denok eman beharko genuke.



« Aita zen odol emalea eta etxean askotan entzuten genuen inportantea zela odola ematea, eta halaxe hasi nintzen 18 urterekin. Operazioak direla, istripuak direla, tratamenduak direla... odola behar-beharrezkoa da eta ez da batere kostatzen ematea; 45 minutuan egiten da eta lista.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

**Herriko
txoko guztietara
iritsi nahi duzu?**

jarri zure iragarkia aldizkarian

publi@onati.eus



OÑATIKO ODOL EMAILEEN ELKARTEA

'Harro egoteko ekintza da odola ematea'

Zer moduz dago Oñatiko odol emaileen elkarteak?

Justu antzean, egia esateko. Aste honetan alarma gorria piztu da, Euskadiko odol bankuko erreserbek behea jo dutelako, eta halakoetan jendeak ondo erantzuten du, baina, gainerakoan, minimora iritsi ezinik gabiltza. Emaille batzuk oso fidelak eta konstanteak dira, baina, oro har, ohiturak aldatu egin dira eta jendea lehen baino gutxiagotan etortzen da odola ematera. Proporzioan, Oñatin hilero 50-52 lagun etorri beharko lirateke odola ematera, baina hilabete batzuetan 40tik behera geratu gara, eta Oñatik badauka horretarako adina biztanle. Duela urte gutxi 65 inguru izaten zen batz bestekoa, baina joera beheranzkoa da. Beraz, helburua da emaille kopurua handitzea, gutxiagotan emanda ere, gutxienez iritsi gaitezen.

Zer esango diogu, bada, jendeari?

Odola ematea beharrezkoa dela, ezinbestekoa; eta odola ematea harro egoteko ekintza bat dela. Jendeak pozik eta harro egon behar du odol emaile taldeko kide izanda. Agian, galdu egin da odolaren behararen sentipen hori, baina odola behar-beharrezkoa da (ebakuntzetarako, minbiziaren kontrako tratamenduetarako...), eta nik ez badut ematen beste batek eman beharko du.

Gaur egun, gainera, txanda sistemari esker oso azkar egiten da odol ematea?

Bai, txanda sistemak hobeto planifikatzeko aukera ematen du. Erosoagoa da emaillearentzat; 45 minutuan, pintxoia janda kalean zaude berriro. Lekua bere ere oso goxoa eta egokia da, bai emailleentzat eta baita mediku-erizain taldearentzat ere. Eskerrak eman beharrean gaude beste behin Mondragon Unibertsitateko Enpresagintza fakultateari.

Nork eman dezake odola?

Osasun arazorik ez daukan 18 eta 70 urte arteko edozein gizon-emakumek. Gizonezkoek urtean lau aldiz eman dezakete, gehienez, eta emakumezkoek hiru aldiz. Batez ere jende gaztea animatu nahi dugu, baina inportanteena da konpromisoa hartzea eta konstantea izatea. Hurrengo ateraldia otsailaren 16an izango da. Txanda hartzeko: 943000884.

Zertarako erabiltzen da ODOLA



Herriz herri ateratzen den odola Galdakaoko ospitalean dagoen Euskadiko Odol Bankura eramaten da eta han 3 osagaitan banatzen da:

- **Globulu Gorriak.** Oxigenoa garraiatzen duten zelulak dira eta, besteak beste, istripuetan edo ebakuntzetan odol jariora izan duten pazientei jartzen zaizkie.

- **Plaketak.** Zauriak ixten laguntzen dute, odola koagulatuz eta odol-husteak saihestuz. Kimioterapia edo erradioterapia jaso duten pazientei, bizkar-muina kaltetuta dutenei edo transplante baten zain daudenei ematen zaizkie, besteak beste.

- **Plasma.** Odolaren zati likidoa da eta han nahastuta egoten dira, besteak beste, proteinak eta immunoglobulinak edo antigorputzak, eta hainbat gaixotasuni aurre egiteko erabiltzen dira.

PLASMAFERESIA

Gaur egun asko igo da plasmaren beharra gure gizartean. Askotan, odol-emate klasikoetatik ateratako plasma ez da nahikoa izaten beharrrak asetzeko. Horregatik, gero eta ezagunagoa egiten ari da plasmaferesia; odol ematearen antzekoa da, baina kasu honetan, ateratako odola zentrifugatu egiten du makina batek, eta plasma banatu ondoren globulu gorriak eta plaketak bueltatu egiten dira emaillearen odol-jariora. Arrasateko ospitalean egiten da.

JUANJE MARGOAK
627 818 247

ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



Kale Zaharra eta Otadui arteko **IRISGARARITASUN PLANA** landu du Udalak

- » Kale Zaharra, Otadui Zuhaitzia, Lizaur kalea, Unibertsitate Etorbidea eta Aita Madina barnebiltzen ditu planak
- » Oinezkoen segurtasuna hobetzea, oztopoak ezabatzea eta ibilgailuen zirkulazioa egokitzea da helburua
- » 9 fase ezberdin bereizi dira eta aurten landuko da lehen faseko exekuzio proiektua

Kale Zaharra eta Otadui Zuhaitzia arteko irisgarritasuna hobetzea helburu duen plana landu du udalak. Oinezkoen segurtasuna bermatzea da helburua eta, horretarako, oinezkoen bideak hobetu eta, ahal den neurrian, irisgarritasun arauetara egokitzeko neurriak jasotzen dira bertan.

Espaloiak zabaltzea, zoladura berritzea, desnibel edo altuera maila aldaketak dauden lekuetan barandak jartzzea, eta oinezkoen ibilbideetan dauden oztopo arkitektonikoak ezabatzea proposatzen da, besteak beste.

Horiez gain, mugikortasun mugatua duten pertsonentzako aparkalekuak, autobus geralekuak eta ibilgailuen zirkulazio-noranzkoarekin lotutako esku-hartze proposamenak ere jasotzen ditu planak.

FASE EZBERDINAK

Kale Zaharra eta Otadui Zuhaitziaz gain, Lizaur Kalea, Unibertsitate etorbidea eta Aita Madina kalea barnebiltzen ditu planak, eta 9 fase ezberdin bereizi dira, lehen-tasun eta unean uneko diru baliabideen arabera gauzatu direnak, epe motz, ertain edo luzean. Udalaren asmoa da aurten bertan lehen faseko exekuzio proiektua lantzea, Iñigo Ruiz Barron Hirigintza batzordeko buruak aurreratu duenez.

BEREZAO INDUSTRIALDEA

Berezaio auzorako oinezkoen bideak ere ez ditu segurtasun neurriak erabat betetzen, Berezaio industrialdeari dagokion eremuan, eta irtenbide bat aurkitu asmoz, gune horri dagokion irisgarritasun proiektua idazteko lana enkargatu dio Udalak *A2B Arquitectos* enpresari 14.950€-tan (+BEZ). Oinezkoen segurtasuna eta irisgarritasun baldintzak bermatuko dituen ibilbide egokia diseinatzea da helburua.

FAGOR
PROFESSIONAL



ONNERA GROUP

Klimaren eta Energiaren Alkateen Itunera atxikitzea erabaki du Udalak

2030erako berotegi efektuko gasen emisioak gutxienez %40 murrizteko konpromisoa hartu du

Oñatiko udalak 2010ean egin zuen bat Alkateen Itunarekin, klimaren eta energiaren arloan Europar Batasunak 2020rako ezarritako helburuak betetzeko asmoz: CO2 emisioak %20 murriztea, energia-eraginkortasuna %20 hobetzea, eta energia eskariaren %20 energia berriztagarrien bidez hornitzea. Helburu horrekin Energia Iraunkorraren Aldeko Ekintza Plana onartu zuen udalbatzak 2012an, eta 2021eko uztailan aurkeztu zuen azken ebaluazioa.

Orain, Europar Batzordeak eguneratu egin du Alkateen Itun hura, anbizio eta irismen handiagoko helburuak ezarriz, hala nola, 2030erako berotegi-efektuko gasen emisioak gutxienez %40 murriztea, bereziki energia

aurrezpenaren eta eraginkortasunaren bidez, energia berriztagarriak baliatuz eta erresilientzia ahalmena areagotuz, klima aldaketaren inpaktuetara egokituz.

Zehazki, berotegi-efektuko gasen emisioen inbentarioa lantzea, klima aldaketaren ondoriozko ahultasun eta arriskuen ebaluazioa egitea, urtebeteko epean klimaren eta Energia Iraunkorraren aldeko Ekintza-Plan berria egitea, eta bi urtean behin, gutxienez, jarraipen txostena aurkeztea eskatzen da itunean.

Oñatiko udalbatzak, aho batez, Alkateen Itunarekin bat egitea eta bertan jasotzen diren konpromisoak bere egitea onartu zuen urtarrileko osoko bilkuran.

136.500€ garapenaren aldeko lankidetzarako

Udalak 136.500€ bideratuko ditu aurten garapenaren aldeko nazioarteko proiektuei laguntzera. Ohi bezala, lau lerro bereizi dira:

A.- Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzak estra-tegikoak garatzeko laguntzak (79.000€).

B.- Hegoaldeko herrialde pobretuetan lankidetzak ekintza edo ekimen puntualetarako laguntzak (30.000€)

C.- Oñatin bertan eraldaketa sozialerako heziketa eta sentibilizazio jardueretarako laguntzak (9.500€).

D.- Larrialdiko laguntzetarako eta ekintza humanitarioko proiektuetarako (18.000€).

Udalaren webgunean (*oñati.eus/tramiteak/dirulaguntzak*) kontsulta daitezke eskaerak egiteko epeak eta eskakizunak laguntza lerro bakoitzerako.

Araozko ostatuaren lizitazioa otsailaren 29ra arte



Araozko taberna-jatetxea eta lau apartamentuen ustiaketa errentan emateko deialdia egin du Udalak. Interesatuak otsailaren 29ra arteko epea dute proposamenak aurkezteko. Lau urteko kontratua sinatuko da, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin. Hileko gutxienezko kanona 1.500 eurotan (+BEZ) finkatu da. Kanona hobetzea (31 puntu), ostalaritza arloko esperientzia (20p) eta jarduketa plana (49p) baloratuko dira. Udalaren webgunean kontsulta daitezke oinarri guztiak.

1,6 milioi euroko ekarpena egingo dio Udalak Mankomunitateari, 2024ko aurrekonturako

Debagoieneko Mankomunitateak abenduaren 21eko gobernu juntan onartu zuen 12,7 milioi euroko aurrekontua 2024rako, eta gastu horiei aurre egiteko 9,5 milioiko ekarpena egingo dute Mankomunitatea osatzen duten udalek. Hauetako bakoitzaren ekarpena zehazteko orduan zerbitzuen araberako irizpide ezberdinak erabiltzen dira: biztanle kopurua, erabiltzaile kopurua, jarduera ekonomikoa, lantegi eta merkataritza lokal kopurua... Aldagai guztiak neurtu eta kalkulatu, Oñatiko udalak 1.599.990 euroko ekarpena egin beharko du aurten.

31.000€ DEBA GARAIA ELKARTEARI. Debagoieneko Landa Garapena elkarteak 204.476 euroko aurrekontua izango du 2024an, eta horri aurre egiteko eskualdeko udalen, Jaurilaritzaren eta Foru Aldundiaren ekarpenak jasotzen ditu. Debagoieneko udalek 144.500 euroko ekarpena egingo dute aurten eta Oñatikoak, zehazki, 31.033 eurokoa. Gogoratu, aurten, berritasun moduan, **Ortulanguntza** zerbitzua jarriko duela martxan Deba Garaia elkarteak (35.000 euroko aurrekontuarekin).

Amiantoaren udal inbentarioa

Espainiako kongresuak 2022an onartutako kutsatutako lurzoruen legearen arabera, 2028rako amiantoaren duten leku eta instalazioen errolda eta material hori kudeatzeko plana prest eduki behar dute udalek, eta, hori kontutan hartuta, udalak *Eurocontrol* enpresari espezializatuari esleitu dio lan hori. Katastroa eta drone bidezko irudiak erabiliko dituzte, besteak beste, amiantodun erai-kinen zerrendak osatzeko.

Biztanleak galdu ditu Oñatik azken urtean

Urtarrilaren 1eko datuz 11.543 lagun zeuden Oñatin erroldatuta, urtebete lehenago baino 24 gutxiago. Iazko urtean zehar 60 haur jaioberri erroldatu ziren Oñatin, eta bertan erroldatuta zeuden 111 pertsona hil ziren. Bestalde, 27 lagun etorri dira kanpotik gurera bizitzera.

XARMA ESTETIKA

Ekintzailea: Ruth Lozano

Helbidea: Bidebarrieta kalea 11-behea
Telefona: 688 690 141
Emaila: xarmaestetika1@gmail.com
Sare sozialak: @xarma_estetika

"Laser bidezko depilazioan erabiltzen dudan aparatu berriari esker nahikoa da aurrez 4 egun egotea eguzkia hartu barik. Lehen hilabete behar zen"



Laser bidezko depilazioa, presoterapia, *Indiba*... azalerako tratamendu berritzaileenak aurkituko ditu bezeroak Xarma estetika zentroan.

Ekintzaileei eskainitako txoko honetan Ruth Lozanok ireki duen Xarma Estetika zentroa aurkezten dizuegu oraingoan. Aparatu eta teknika berritzaileak erabiltzen ditu aurpegiko eta gorputzeko tratamenduetan eta depilazioetan. Masaje lasaigarriak ere ematen ditu.

Zer dela eta animatu zara estetika zentro bat irekitzera? Txikitatik neukan garbi estetika zentro bat ireki nahi nuela, izugarri gustatzen zaidalako mundu hau. Hemezortzi urte bete arte itxaron nuen Eusko Jaurlaritzaren titulua (Estetika eta Ongizate Integraleko Goi Mailako Gradua) ateratzeko. Gero, bi urtez lanean aritu nintzen Donostiako zentro batean, esperientzia hartzen eta trebatzen —aparatu eta teknologia berrietan, bezeroekiko hartu-emanen...—. Eta iaz Oñatira bueltatu eta Xarma Estetika zentroa zabaltzea erabaki nuen, hiriburuetan bakarrik ikusten diren teknologia eta aparatu berri horiek oñatiarren zerbitzura jartzeko gogoz eta ilusioz. Apustu inportantea egin behar izan dugu, baina familiaren babesa eduki dut eta oso pozik nago.

Zer da Xarma Estetika? Estetika zentro bat da, eskuzko eta aparatu edo makina bidezko tratamenduak egiten dituen azalaren itxura hobetzeko, azaleko ehunari irmotasuna emateko, koipeak erretzeko...

Zein zerbitzu mota eskaintzen dituzu? Oso emaitza onak lortzen ari naiz laser bidezko depilazioarekin. Aparatu berria (Láser Diodo Triple Onda) erabiltzen dut eta horri esker nahikoa da lau egun egotea eguzkia hartu barik tratamendua aplikatu aurretik (lehen hilabete egon behar zen). Bezeroak oso pozik daude.

Azalari irmotasuna emateko eta zimurak betetzeko erabiltzen dudana *Indiba* teknologiak (aurpegiko eta gorputz osoko radiofrentzia) oso emaitza onak ematen ditu. Koipea murrizten eta zelulitisa hobetzen ere laguntzen du.

Izpi infragorriekin egiten den presoterapia tratamendua ere badaukat. Drainatze linfatikoa eta likidoen zirkulazioa hobetzen laguntzen du. Oso tratamendu konpletua da; koipea erretzeko ere balio du eta gorputz osoa, hankak bereziki, arintzeko balio du. Gorputz osoko masaje lasaigarriak ere egiten ditut.

Nori dago zuzenduta? Normalean, 35 urtetik gorako gizon-emakumeak izaten dira gure bezeroak, adin horretan, gutxi gora behera, hasten garela zimurrez eta azalaren itxuraz kezkatzen. Gehienbat emakumeak izaten dira, baina gizonezkoak ere etortzen dira, batez ere depilatzera, eta masajeak hartzera ere bai.

Laguntzarik izan al duzu estetika zentroa martxan jartzeko? Enplegu zerbitzuaren laguntza -orientazioa eta aholkularitza- izan dut, lanpostua sortzeagatik dirulaguntza ere bai, eta baita Euskara sailarena ere, errotulazioa euskaraz jartzearren.

“BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR”

ZUNTZA 500Mb

+ MUGIKORRA 48GB ^{5G}

+ DEI MUGAGABEEKIN

39,90€ /HIL

AGILE TELEBISTA 6€/HIL

Eta dohainik **eraman aire**
bidezko TRISTAR frijigailua
edozein mugikor + zuntza tarifa
kontratatuz



PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



BEZ barne. Doako instalazioa. Iraupena 3 hilabete. Prezio honek lehenengo 12 hilabeteetarako balio du, ondoren 42,90€. Aire bidezko frijigailuaren opari-promozioa 2024ko otsailaren 1etik 29era, edo stocka amaitu arte, LIZKER Informatika dendan MÁSMÓVIL-eko edozein mugikor + zuntza tarifa kontratatuz. Oparia, zuntza instalatutakoan eskatu daiteke. Kontsultatu gainerako baldintzak LIZKER Informatika dendan.

MÁSMÓVIL
AHORRA, SIN MÁS



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariako erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Iñigo Arregi

Diseinua eta Maketazioa:

bigga. studio

Kolaboratzaileak:

Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Urte berriko petardoak

Itziar Landeira

2024an sartzean, gero eta hedatuago dagoen "ohitura" batekin topatu ginen: piroteknia. Batzuentzat, zoragarria izan zen; niretzat, gehiegikeria hutsa. Su artifizialak gustoko dituzten pertsonak balkoietan zeuden bitartean, beste batzuk, pertsianak itxita, etxeko animalia lasaitzen geunden.

Urtea poztasunez hasteko modua izan daitekeela ulertu dezaket: jai giroa, familia eta lagunak... Baina gero eta ezagunagoak dira pirotekniaren kaltea sufritzen dutenak: gizakiak, animaliak eta ingurumena.

1) GIZAKIAK: adinduak edo haurrak; dementzia, Espekto Autistaren Nahasmendua, Down sindromea, Garapenaren Nahasmendu Orokorra... duten pertsonak, beldurra, antsietatea edo nerbio-krisiak pairatu dezakete.

2) ANIMALIAK. Beldurra, dardarak, urduritasuna, estresa, takikardiak, bihotz-gelditzeak, heriotza... Urtero txakurren batek beldurtuta ihes egin duela irakurtzen dugu.

3) INGURUMENA. Su artifizialek gas kutsatzaileak askatzen dituzte (karbono monoxidoa adib) eta tokiko airearen kalitateari eragiten diote. Ez daukagu Erreterriako suteraino joan beharrik. Aurten, San Lorentzoko balkoi batean piroteknia hondarrak aurkitu dira.

Inolako segurtasun neurririk gabe, edonork eta edonon, su artifizialak botatzea segurua ikusten al duzu? Ume batek urtea nerbio-krisi batekin hasi dezakeela jakinda, berriz botako zenuke bere etxe azpian petardoak?

Bukatzeke, auzoko jaietako antolatzaileak hausnarketa bat egitera animatzen ditut, ia urte osoa daramagu eta suziriak pairatzen. Ez al dago beste modurik ospakizunerako?

Jolas-eremu inklusiboagoak eta seguruak

egiten ditugun moduan (piktogramak zebra-bidetan, "zarata gabeko eguna" barraketan, "kolunpixo" irisgarriak...), ospakizun kontziente eta enpatikoaren beharra ikusten dut. Batzuen dibertsioak ez du besteen ondoezak baino gehiago balio eta.

Herribusa, San Prudentziora (Elorregira)

Amaia Erostarbe Letamendi,
EAJko udal-taldearen izenean

A Abenduaren 15ean 'Herribusa, Elorregira' aizeneko iritzi-zutabe laburra argitaratu eta sinatu nuen *Goienan*, EAJko Oñatiko udal-taldearen babesarekin. Idatzi horri, Xabier Igartuak, EH Bilduko Oñatiko udal-gobernuko bozeramaileak, erantzun zion abenduaren 22an *Goienan* bertan eta aldaketekin, urtarreleko *Kontzejupetik*-en.

Otsaileko *Kontzejupetik* honetan, abenduaren 15en *Goienan* argitaratu nuen zutabea jaso dut, Oñatiko irakurleek EAJko udal-taldearen gogoeta irakurri dezaten:

Herribusa, Elorregira

Aurrekontua da erakundearen dokumentu ekonomiko nagusia, eta tokiko politika publikoaren lehenetsunak zehazten ditu, urtebeterako. Oñatiko udalean, abenduaren 14ko Osoko Bilkuran aurkeztuko da 2024ko aurrekontu-proiektua; ondoren, irizpena adieraziko dute udalbatzako bi alderdi politikoek.

EAJko udal-taldeak zortzi emendakin aurkeztu zituen azaroaren 28ko Ogasun batzordean, udal-gobernuaren aurrekontu-proiektua hobetzeko. Besteak beste, proposatu du Herribusaren 3. linea ezartzea (Oñati-San Prudentzio-Oñati); 100.000 euroko aurrekontua aurreikusuta du, "Jasangarritasunerako inbertsioak" diru-lerrotik finantzatuta (150.000 euro). EAJko zinegotzian iritzi apalean, hirugarren lineak, PESAk ematen duen zerbitzuaren osagarri, San Prudentzioko konekzioak (hiriburuekin, bereziki) era erosoagoan eta osoagoan ahalbideratuko ditu.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

Izan ere, lotura horiek arazo bihurtu dira garraio publikoa erabili ohi dugun oñatiarrentzat. San Prudentziorainoko auzoen komunikazioa ere nabarmen hobetuko du.

Udal-gobernuak ez du onartu emendakina: ez du egoki ikusi Oñatiko udalaren aurrekontuen baitan egitea.

EAJko udal-taldearen ustean, kokapenak ematen dio Oñatiri berezitasuna mugikortasunari dagokionean, autobus-geltoki nagusia herrigunetik urruti baitugu. Erakunde guztiak inplikatu beharko genituzke arazoari konponbidea aurkitzeko, herritarren mesedetan, pilota alde batetik bestera ibili ordez. Gertu gaude beharrezko foro guztietan gure esku dagoena egiteko.

Xabier Ugarte Aiastui

Jerardo Elortza

Musikia zan bere pasiñua eta baeukan zaletasun hori aseteko gaittasuna: ahots ederra eta kittarria joteko abildade aparta. Gazte-gaztetatik jardun eben eten barik musika-zeregiñetan, hainbat talde eta korutan. Oñatiar gehixenok ezagutu dogu urte askuan Xabierren alderdi hori. Baiña etziran hor agorketan bere ahalegiñak. Izan be, makiñatxo bat ordu pasau eben grabaziñotan, diskuak ataraten, artxibuak azterketan eta ezkutuko beste lan askotan, Oñatiko eta Euskal Herriko kulturiaran mesedetan.

Xabier majo saiatu zan Frantzisko Madinarenak ez ezik, Luis Mallea, Fernando Urkia, Julian Sagasta, Blas Andres Kortabarria, Jose Azpiazu, Pio Mortara eta abarren obrak, izkribuak eta gutunak agerketan eta zabalketan. Alkarlanerako betik prest, lagunketako eta ekixena partiaiteteo betik gertu. Eta hori, gaiñera, urtietan kooperatiba batian zortzi ordu sartu eta gero. A zelakotxe merittua! Milla esker, Xabier, hirengandik jaso dogun guztiagatik.

OHAR ETA DEIALDIAK

Ehun urte, mila zorion Martina Ugarte

Martina Ugarte Ayastuyk ehun urte bete zituen abenduaren 27an eta halakoetan ohikoa den moduan udal ordezkarien bisita jaso zuen. Izaro Elorza alkateak eta Lierni Altube Ongizate batzordeko buruak lore sorta eta oroigarri bana eman zizkieten herritar guztien izenean.

Olalde baserrian jaioa, Miguel Etxeberriarekin ezkondu zen Martina eta hiru seme-alaba izan zituzten. Ile-apaintzaile lanen jardun zuen Martinak 50 urtean, Donostian bizi zen izeba pelukera batekin ofizioa ikasi ostean.

Gerra garaian une gogorak bizi behar izan zituen, Ceferino anaia fusilatu baitzuten 21 urte zituela, Martina bera 12 urteko neskatila zela, *Kontzejupetik* aldizkariaren 119. zenbakian kontatu zigun moduan.

Bere bizitzan zehar lotura estua izan du Matinak EAJ alderdiarekin eta, hala, batzokiko dantza eta antzerki taldeetan ibili zen, besteak beste. Horregatik, jeltzaleen lehendakari Andoni Ortuzarren eta Oñatiko hainbat alderdikideren bisita ere jaso zuen Martinak.

Egun, alabarekin bizi da Martina eta burua oso argi dauka. Eguraldi onarekin kalera irtetzea gustatzen zaio, eta baita meza entzutera joatea ere ahal duen guztietan.



Presoen aldeko zozketan saritua

Preso eta iheslarien alde urtero egiten den zozketan 771 zenbakia atera zen saritua. Eñaut Aiastuik zeukan txartel hori eta berak jaso zuen saria, Gabon saski ederra, argazkian ikusten den moduan. Zorionak, eta eskerrik asko parte hartu duten guztiei.



Lan eskaintza

ORTUZABALA Oñatiko Elikadura Taldeak pertsona bat edo bi behar ditu ortulari taldea osatzeko. Ortuzabala taldeak 10 urte baino gehiago daramatza funtzionatzen kontsumo-talde egonkor baten laguntzarekin. Asteroko merkatuan ere parte hartzen dute eta denda nahiz jatetxe batzuetara ere banatzen ditu barazkiak. Beraz, talde horizontal bateko kide izan eta elikadura burujabetzan, km0, norberaren eta ingurumenaren zaintzan lehen lerroan lan egin nahi baduzu... Jarri gurekin harremanetan: 623 254 141 (Jabi).

**Herriko txoko guztietara
iritsi nahi duzu?**

jarri zure iragarkia aldizkarian

publi@onati.eus



OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

TXALOKA LUDOTEKAKO EBAIKOTZAK

Txaloka Ludoteka haurrez josita ikustea da helburu nagusia. Asmo hori oinarritzat harturik, iazko ikasturtetik martxan jarri ditugu **Txalokako Ebaikotzak**.

Txalokako Ebaikotzak ekimenaren meta nagusia Ludoteka ahalik eta oñatiar gehiengana heltzea da; eta, horregatik, ostiral guztietan herrira zabalik dauden ekintzak antolatzen ditugu Ludotekako hezitzaileok. Noizean behin, gainera, gonbidatu bereziak ekartzen ditugu bertara: magia ikustaldia, ipuin kontaketa...

Arratsalde goxo eta dibertigarri bat pasatzeaz gain, Ludotekako espazioa, hezitzaileak...ezagutzeko aitzakia dira Txalokako Ebaikotzak. Aste osoan zehar, Ludotekako ateak hura ezagutu nahi duen ororentzat zabalik dauden arren, ostiralero herriko haur guztiei gonbidapen berezi bat egiten ahalegintzen gara.

Gonbidapen hau zabaldu nahi da, baina, Txaloka Ludotekako egunerokoan parte hartzearen garrantzia ere azpimarratuta utzi nahi dugu. Gogoan eta balioan jarri behar baita Ludotekak herri honi eskaintzen dion aberastasuna. Oñatiko Txaloka Ludoteka, euskaraz jolasteko eta lagunartean ondo pasatzeko gune bat da, 3-4 urtetik 8-9 urtera bitarteko haurrentzat bideratuta. Astelehenetik ostiralera jolas librearen bitartez, haurren autonomia eta parte hartzea bultzatzen da bertan.

Ez galdu aukera eta bete dezagun Ludoteka haurrez. Parte hartu eta hurbildu gu ezagutzera!!

Hilabete bakoitzaren bukaeran, hurrengo hileko ebaikotzak publikatzen dira Txaloka Ludotekako sare sozialetan. Beraz, egon adi!

OÑATIKO DENDARIEN TXANDA ELKARTEA ETA GAZTELEKUA ELKARLANEAN

Pasatu berri diren Gabonek gure herriko Dendarien, Txanda Elkartearen, eta Gaztelekuko DBH4ko prozesuko gure gazteen arteko elkarlanerako aukera paregabea eman digute. Txanda Elkarteak gure herriko plazan jarritako tonbola kudeatu dute gazteek, abenduaren 14an hasita eta urtarrilaren 4ra arte. Txanda Elkarteak eskainitako sariak eta opariak kudeatzeko lanetan aritu dira bertan. Ez da erronka erraza izan; baina, hala ere, gure 15-16 urtetako neska-mutilek ondo bete dute eskatutako lana, eta horrek ardurak hartzea zer den erakutsi die: zabaldu eta ixteko ordutegi batzuk errespetatzea, dirua maneiatzeko ardura izatea, lana publikoari begira zer den ikastea... eta horri esker, gainera, dirutxo bat lortuko dute euren proiekturako. Ekintza borobila benetan!

Hau guztia dela eta, aprobetxatu nahi ditugu lerro hauek ere Txanda Elkarteari eskerrak emateko, gure gazteekin akordatzegatik eta eurengan jarritako konfiantzagatik. Milesker!!!



3-9 urte bitarteko haurrentzat

Astelehenetik ostiralera
16:45 - 20:00 bitartean

Lizaur kalea, 5
943250715 / 688786659
txaloka.ludoteka@gmail.com

@txalokaludoteka



'AZKEN DIOSALA'

Mungiako San Antontxu bertso-paper lehiaketan bigarren saria jaso du Urko Egañaren bertso sorta honek.

Egilea: Urko Egaña Calderon / **Doinua:** Ausencia, Imanol (11A, 11B)

– 1 –

Orri zuri baten aurrean nago
esku batean arkatx bat dudala,
punta zorrotz-zorrotzeko puñala
ez da izango arriskutsuago.
Testu bat idaztetik haratago
idatzitako azken diosala,
biharrik izan ez banu bezala
baina bihar baino nekatuago.
Arkatx punta gero ta zorrotzago
ari zait jartzen idatzi ahala.
Akaso ez luke beharko hala
baina hau bukatu beharra dago.

– 2 –

Esnatu gabeko goizen gudua
ta lorik hartu gabeko gauena
ez da dagoen biderik lauena!
Ta hor korapilatzen zait mundua
non ez naizen sentitzen segurua
ia haserretuz mundu laurdena!
Ta familia mintzen dut aurrena;
nere bizi-poz denen sorburua.
Maitasunez hustu dut ingurua
fartsa huts bat baitelako hau dena!
Ezin badut maite maite nauena
nola maiteko dut nere burua?

– 3 –

Izan daiteke nire izakera
udaberri bat aurkitzeko gudan
baina ez dakusat argirik udan
non dena doan negu izatera.
Herio gaur etorri zait atera
berarekin eramateko guran,
ikusiz zenbat aukera ditudan
har nazala ta hemendik atera!
Ez noa gehiago tripak jatera,
ez dut damurik ta ez nago dudan!
Ta ea sufritzea uzterik dudan
sufriaraztearekin batera.

– 4 –

Ez bizi-maila ta ez ongizate,
zenbat amets ta zenbat egitamu
beteko ez direnak etzidamu
bilakatzen ez bazaizkit hitzak ke!
Gerora ere biziko nintzake
dudan iraganik izan ez banu.
Dena da ke beltz ta dena da mamu
ta iraganak berak hil nazake.
Horregatik biziko naiz gaur arte
ta ez naiz erabakiaren damu,
itxaropenak beharko luke amu
baina horrek ez nau tentatzen bate!

– 5 –

Bizitza ez da zenbaitek dioten
bezain eskuzabal, bezain oparo...
Nik bizi dudanetik haratago
ez dakit bizitza dei dakioken!
Pazientzia izateko zioten
zeren berandu baino lehenago
konpontzen ez denik ez omen dago!
Ta hor nago egonean egoten.
Lehen baneukan nahiko itxaropen,
ezin izan itxaropentsuago,
baina iadanik aspertuta nago
helduko ez denari itxaroten.

– 6 –

Begietan metatutako i(hi)ntzen
min tantak bihotzera jauzten dira
ta nere hanka-sartzeen harira
poliki-poliki ari naiz hiltzen.
Arazoak ez badira gutxitzen
konponbide bakarra maiz gutxi da.
Arazoak izatetik gutxira
arazo izatera pasa nintzen.
Nere barruko emozio-mintzen
jarrera ezin daiteke deskriba;
etxeko inortxo ez dut gupida
ta kanpoko ezertxok ez nau mintzen!



URKO EGAÑA
Bertsolaria

– 7 –

Ez da hau konpon dezaken dirurik!
Alperrik baita zerrailaren giltzak
ez baditu dagozkion baldintzak
ta ez badu zabaltzeko modurik!
Kostata itzali dezake surik
maiz alkoholari darion bitsak,
ta honezkero, erre den sasitzak
ere ez du behar izango urik.
Begiak negar malkotan bildurik
nabil idazten nere azken hitzak,
nahizta asko eman didan bizitzak,
bizitzak berak bizitza kendu dit!

– 8 –

Nere azkenengo ahapaldia
edo aukeratu dudan hil-era,
egin ditudan gauz txarren bilera
bihurtu zait ametsen nostalgia.
Hor bukatuko zait negarraldia
hor bukatzen zait minen ibilera,
hor bukatzen zait akatsen hilera,
hor geldituko zait arnasaldia.
Hor bukatzen dut nere hegaldia
aurreko amildegitik behera.
Hauze da zerbait gaizki egitera
noan nere azkenengo aldia.

 **Catalana Occidente**

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com



PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

Binakako Urrezko Aizkora txapelketako finalerdi bat Oñatin jokatu da

OTSAILAK 11, IGANDEA, FORUEN PLAZAN, 12:00



Euria egiten badu, Zubikoa pilotalekuan jokatu da

Herri kirol jaialdi bikainaz gozatzeko aukera izango dugu Oñatin otsailaren 11n, binakako Urrezko Aizkora txapelketako finalerdi bat jokatu baita bertan. Hiru bikote ariko dira nor baino nor gehiago: **Hodei Ezpeleta-Jokin Urretabizkaia 'Basozabal'**, **Ugaitz Mugertza-Ibai Soroa** eta **Jon Rekondo-Oihan Larretxea**.

Bikote bakoitzak 36 enbor moztu beharko ditu bost modalitate ezberdinetan, eta lanak burutzeko denbora gutxien behar dituen bikotea hamabost egun beranduago Azpeitian jokatu den final handirako sailkatuko da.

Binakako txapelketa nagusiaz gain, gazte mailako banakako aizkolari txapelketako bi norgehiagoka ere jokatu dira. Alde batetik, **Igoñ Pikabea**

eta **Jon Erdozia** izango ditugu aurrez aurre, eta, bestetik, **Oier Mitxelena** eta astebete lehenago jokatu den Beasaingo saioko bigarren sailkatua.

HARRI-JASOTZE TXAPELKETA

Harri-jasotzaileak ere izango ditugu Oñatiko saioan. Gizonezkoen banakako harri-jasotze txapelketan **Xabat Olaizola** eta **Julen Diaz** ariko dira nor baino nor 175 kiloko lauki-zuzenarekin, 125eko kopa eta kubikoarekin, eta 113ko bolarekin.

Bestalde, emakumezkoen banakako txapelketan **Lucia Orbe** ariko da 63 kiloko zilindro, kubiko eta bola banarekin, ahalik eta altxaldi gehien egiteko ahaleginean.

Ikuskizuna dohainik izango da, eta Oñatiko Herri Kirolen Taldeak animatu egin nahi ditu saioa ikustera.

MENDI LASTERKETAK


Golden Trail National Series zirkuituan egongo da aurten Aloñako Igoera



Urrats berria egingo du aurten Aloñako Igoerak, Salomon markak antolatzen duen Iberiar penintsulako **Golden Trail National Series** zirkuituan sartu baita. Espainian eta Portugalen jokatzeko diren lau mendi lasterketa barnebiltzen dituen zirkuitua da hau, eta lehenengo sailkatuek mundu mailako **Golden Trail Series** zirkuiturako txartela lortzen dute. Beraz, oihartzun eta sona handia emango dio lasterketari eta Oñatiko herriari, jakina.

Aloñako Igoera Euskal Herrian jokatzeko den lasterketarik zaharrenetakoa da, eta Salomonen zirkuituan egotea aitortza moduko bat da kirol proba honen inguruan diharduten antolatzaile, babesle eta boluntario guztientzat.

Dena den, lasterketari berari ez omen dio aldaketarik ekarriko, antolatzaileek adierazi dutenez. "Betiko moduan jarraituko dugu lasterkariak eta mendia mimoz zainduz, herriaren alde lanean". Aurtengo Aloñako Igoera, XIX.a, apirilaren 28an jokatu da eta dortsal guztiak (300) ziztu bizian agortu ziren, bai oñatiarrentzat gordetako 100 zenbakiak eta baita gainerako guztiak ere.



COINBROKER
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎️ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉️ OINATI@COINBROKER.EUS

MENDI IRTEERA / Otsailak 18

ORDUNTEKO MENDIKATEA

Balmaseda-Kolitza (879m)-Burgüeno (1044m)-Nocedal



Aloña Mendik otsailerako antolatu duen mendi ibilaldia Bizkaiko Enkarerrietan izango da, Bizkaia eta Burgos elkartzan dituen Ordunte mendikatean barrena. Kolitza mendia bost **Deiadar-mendietako** bat da (monte bocinero). Antzina, adar-soinua jotzen omen zuten bost menditatik (Gorbeia, Oiz, Sollube, Ganekogorta eta Kolitza) Bizkaiko Batzar Nagusietarako deia egiteko. Hortik izena.

15 kilometroko ibilbidea da (+1.000m), 5-6 ordu inguruan egiteko modukoa, eta ez du batere zailtasunik.

Irteera, goizeko 7etan postetxe parean. Izena emateko epea: otsailak 15, osteguna, Aloña Mendi tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Bazkideek 10€. Federatuta egon behar da.

Gimnasia erritmikoko Espainiako txapeldunak master class saioa eskainiko du Oñatin

Eneko Lambea leioarra Aloña Mendiko gimastekin ariko da otsailaren 3an, Zubikoan

Aloña Mendiko gimnasia sailak gonbidatuta, Eneko Lambea gimnasta leioarra Oñatira etorriko da larunbatean (otsailak 3) master class erako saio berezi bat eskaintzera. Gizonezkoen gimnasia erritmikoan estatu mailan goren gorenean dabilen mutila da Eneko. 2016an igo zen aurrenekoz Espainiako txapelketako podiumera, eta ordutik ez da jeitsi; 2017 eta 2018an Infantil mailako txapelduna izan zen, 2019an Junior mailakoa, eta 2021-2022an maila absolutuan nagusitu zen. Tamalez, nazioarte mailan, oraingoz, emakumezkoak bakarrik lehiatzen dira, eta horrek freinoa jarri dio gimnasta bizkaitarraren ibilbideari.

Otsailaren 3an, esan bezala, Zubikoa kiroldegian (16:00-19:00) izango da eta master class bat eskainiko die Aloña Mendiko gimnasta koskortsuenei. Berotze ariketak egin ostean koreografia bat prestatuko dute elkarrekin, atek itxita, eta saioaren amaieran gimnasia taldeko gaztetxoeren aurrean erakutsiko dute landutakoa. Lambeak berak ere egingo omen du erakustalditxo bat.



Lambea maila guztietan izan da Espainiako txapelduna



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com



Dantzarako doinuak

Urtarrileko kontzertuko irudia,
(Argk.: **Santi Mendiola**)

Pasodoblea, tangoa, euskal dantzak, erritmo latinoak... Dantzarako doinuak izango dira protagonista musika bandaren otsaileko kontzertuan

OTSAILAK 18, IGANDEA
ZUBIKOA PILOTALEKUAN, 13:00

Dantza mota ezberdinetako erritmo eta doinuak izango dira protagonista musika bandaren otsaileko emanaldian. Pasodoblea, tangoa, euskal dantzak, erritmo latino eta mexikarrak, eta Aleksandr Borodinen *Igor Printzea* opera errusiarraren barruan dauden 'Danzas Guerreras' pasarte ezaguna ere interpretatuko du musika bandak, Aitor Biain-Bidareren zuzendaritzapean. Gorputza mugitzeko kontzertu aproposa, inondik ere.

Kontzertua dohainik izango da, ohi bezala, baina sarrera eskuratu behar da Txokolateixan. Aurretik, (11:00) musika bandak kalejira egingo du herriko kaleetan zehar.

EGITARAUA



- **Yakka-Pasodoblea**
(J. R. Vilaplana)
- **Danzón n°2**
(A. Marquez / Mold: A. Boysen)
- **Euskal dantzak**
(J. A. Altuna)
- **Danzas guerreras**
(A. Borodin)
- **Ritmos de la tierra: Soca, Tango**
(V. Valencia)
- **Mambo n°8**
(Mold: P. Prado)



OMENDUAK Urtarrileko kontzertuaren atarikoan musika bandako zenbait kidek omenalditxoak jaso zuten. Batetik, bandan 25 urte bete berri dituzten Iñigo Ugarte, Goizalde Beitia eta Esteban Arriaranek oroigarria bana jaso zuten. Bestalde, lanean erretiroa hartu berri duen Felix Biain bandako ohorezko bazkide izendatu zuten eta bandarekin erakutsi duen konpromisoa aitortzen duen plaka bat jaso zuen. Biainek 40 urtetik gora daramatza bandan.

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTJETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 ONATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

IKUSMIN

gazteentzako euskarazko irakurketa eta idazketa laborategia jarriko da martxan udal liburutegian

Garazi Ramirez, Uxue Iruretagoiena eta Maria Murgiondo LEINNe (Mondragon Unibertsitateko Lidergo ekintzailea eta berrikuntza gradua) hiru ekintzaile gazte dira. Irabazi asmorik gabeko enpresa bat sortu zuten beraien lehen urtean eta elkarte horri esker, garapen pertsonala eta kolektiboa bultzatzen dituzte proiektu errealak gauzatuz eta erronkei aurre eginez. Horietako proiektu bat IKUSMIN da, eta lehen prototipoa Oñatiko Udal Liburutegian jarriko da martxan.

» 12 eta 14 urte bitarteko gazteei zuzendutako lau saio antolatu dira.

» Taldeka ipuin bat idazteko aukera izango dute, dinamika sortzaileak erabiliz

Laborategi honek, gazteen artean euskarazko irakurketa eta idazketa sustatzea du helburu, eta horretarako, ipuin lehiaketa berritzaile bat diseinatu dute. Oñatiko Udal liburutegiarekin elkarlanean, 12 eta 14 urte bitarteko gazteei zuzendutako lau saio antolatu dira. Saio horietan, parte-hartzaileek taldeka ipuin bat idazteko aukera izango dute, ipuin lehiaketen metodo tradizionalak alboratuz eta bestelako dinamika sortzaileak erabiliz. Halaber, idazle baten elkarlana izango dute gazteek eta teknologia berriak erabiliko dituzte esperientzia aberasteko.

Saio horiek otsailean zehar burutuko dira (ostiral arratsaldetan edo larunbat goizetan, gazteak erabakiko dute noiz), beraz parte hartzera eta ekimen zirrargarri honekin bat egitera animatzen zaituztegu. Izen ematea: LIBURUTEGIAN

Herriguneko auzoetako jai-batzordeen bilera

BILERA DEIALDIA Udaleko Kultura sailak deituta, herriguneko auzoetako jai-batzordeei zuzendutako bilera egingo da otsailaren 5ean, kultur etxeko bilera gelan (18:30). Aurtengo jaien egutegia zehazteaz gain, honako gaiak jorratuko dira, besteak beste: udal materialaren eskaera eta erabilera; erraldoi eta buruhandien kudeaketa; musika ekipoaren kudeaketa, aseguru polizak; dirulaguntzak tramitzeko prozedura.

KORRIKako herri-batzordea martxan da

KORRIKA Lanean hasita dago 23. KORRIKArekin inguruko antolatzeaz arduratuko den herri mailako lantaldea. Dagoeneko bilera pare bat egin ditu eta 'Korrika Kulturala' izango denari forma ematen hasi dira. Hala, asteburu honetan bertan izango dugu aurreneko ekitaldia ('Bizkarsoro' filma), eta 'Malko' taldearen kontzertua ere iragarri dute, martxoaren 23rako.



ARROPA SALMENTA ETA KORRIKA LAGUNTZAILE

Otsailaren 13an (Aratuste martitzena) Korrika-ko arropa eta bestelako osagarriak saltzeko postua jarriko dute herriko plazan (17:00-20:00), eta 'KORRIKA Laguntzaile' (15€ren truke, abantaila ugarirekin) egiteko aukera ere egingo da bertan.

Gogoratu, martxoaren 23an igaroko dela Korrika Oñatitik, gozoko 04:15ak aldera, Elorregitik Legazpira bidean. Aurretik, Korrika Txikia egingo da herriko kaleetan barrena, eta, ondoren, goizaldean lekukoa Oñatira iritsi bitartean hainbat ekintza antolatzeko asmoa dago, herria girotzeko.

Kopla kantari arituko da Aloña abesbatza

SANTA AGEDA Pake Lekuko Aloña abesbatza kopla kantari ibiliko da **otsailaren 4an**, Santa Ageda ospatuz. Goizeko 10:00etan hasiko dira San Martin egoitzan, eta ondoren kalez-kale ibiliko dira. Animatu egin nahi dituzte herritarrak parte hartzera.

Bestalde, **otsailaren 8an** Bingo saio berezia egingo dute Pake Lekun, Ostegun Gizen eguna ospatzeko, eta **otsailaren 13an** Tolosako Inauterietara joango dira egun pasa. 'Oñati Ezagutzen' ekimenaren baitan Natur Eskola ezagutzera joango dira **otsailaren 22an**. **Hilaren 27an** pertsona nagusiei zuzendutako nutrizio eta kirol kontuen inguruko hitzaldia izango dute, eta **otsailaren 26an** Tenerifera joango dira (9 eguneko bidaia).

Asteburu kulturala Araozko ostatuan



Otsailaren 3an PETTI musikari nafarraren kontzertua egingo da Araozko ostatuan (20:00), eta otsailaren 4an (12:00) haurrentzako kontuak eta esperimentuak, Ana Galarragaren eskutik

'Ni eta nitarrak' Gaztetxean

Emakume gazte eta euskaldun baten dramak kontatzen dituen antzezlanak ikusi ahal izango dugu otsailaren 4an Antixena Gaztetxean (19:00), Iholdi Berristain aktorearen eskutik. Sarrera: 8€/3€





SUKENA + BENGÓ

OTSAILAK 23, OSTIRALA
GAZTELEKUAN, XX:XX

Sukena taldearekin batera Aitor Bengoetxea 'Bengo' rap dantzari eta musikari oiartzuarrak osatuko du otsailaren 23ko kontzertuko kartela. Pop-rock talde oñatiarrak irekiko du emanaldia eta, ondoren, 4 Taupada albuma aurkeztuko du Bengo-k.

Otsailak 23, Oñatiko Gaztelekua, **SUKENA**ren hurrengo geralekua

Berriki plazaratu duen bere lehen diskoa aurkeztuko du Oñatiko pop-rock talde gazteak. 'Bengo' rap dantzari eta abeslari oiartzuarrak osatuko du kartela



Sukena taldeak urrian plazaratu zuen bere estreinako diskoa, *Guztia gordetzea ezinezkoa da*.

Otsailaren 23an aukera berria izango dugu *Sukena* zuzenean entzuteko, bere lehen diskoa plazaratu berri duen pop-rock talde gaztea.

Oñatin bertan eman zuten diskoaren aurkezpen kontzertua urriaren 27an, baina hura Antixena Gaztetxean izan zen eta oraingoan Gaztelekuko oholtzara igoko dira, eta gogotsu daude berriro ere herritarren aurrean jotzeko. "Gaztetxeko kontzertua oso ondo egon zen, aretoa bete egin zen, oso giro ona sortu zen, eta Gaztelekuko kontzertua aukera polita izan daiteke beste publiko mota batengana iristeko".

Izan ere, Sukenakoek gogor egin dute lan diskoa ateratzeko eta orain ahalik eta zabalkunde



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

handiena eman nahi diote, ahalik eta jende gehienarengana iritsi nahi dute, eta horretan dihardute. Abendua eta urtarrila bitartean dozena erdi bat kontzertu eman dituzte, azkena Bilboko Zazpi Katu Gaztetxean, eta horrela jarraitzea da asmoa. Orain lanpetuta dabilta ikasketak direla eta, baina udaberri-uda partean ahalik eta plaza gehien egitea da helburua.

SEIKOTE FORMATUAN EGONKORTUTA

Eider eta Naia Herraiz ahizpek sortu zuten *Sukena* orain dela 3-4 urte. Denbora batez bertsiok formatu akustikoan jotzen aritu ostean, taldea osatzea pentsatu zuten, erregistro eta soinu berrien bila, eta, hala, taldera batuz joan ziren Asier Igartua (gitarra), Iratxe Urzelai (baxua), Xabi Albistegi (bateria) eta Xanti Egaña (gitarra) seikotea osatu arte. Herraiz ahizpek abestu egiten dute eta, tarteka, gitarra eta soinua ere jotzen dute.

2022an *Danbaka* lehiaketan parte hartu zuten eta han aurkitu zuten talde bezala jarraitu eta diskoa ateratzeko motibazioa. Hala, 2023an entsegu lokalean murgildu ziren buru-belarri eta abuztuko azken astean grabatu zuten diskoa Haritz Harreguyren estudioan. "Bost egun eman genituen diskoa grabatzen, oso intentsoak izan ziren, baina, egia esan, sekulako esperientzia izan zen, oso aberasgarria. Hasieratik gure ondoan egon den Imanol Astudillo teknikariak ere lagundu zigun, eta, egia esan, oso gustura gaude emaitzarekin eta izaten ari den harrerarekin". Eltzia, Aker eta Boga tabernetan dago salgai, eta kontzertu egunean ere bai, noski.

Apirilera arteko egitaraua aurkeztu du Burrunda Faktoriak

BURRUNDA FAKTORIA		ANTZINA BAZETEXAN
URTARRILAK 20	19:00	OSABA KIMU + ASTELEHEN GOIZAK
URTARRILAK 28	17:00	AMELI ETA XIRRIKITUEN JOSTUNEK + ESKULANAK
OTSAILAK 14	19:00	PUNKAREN BESTE ALDEA (DOKUMENTALA)
OTSAILAK 17	19:00	HABI + ZIRAUN
OTSAILAK 18	19:00	SARA ZOZAYA
OTSAILAK 25	17:00	EKAIN-TXOU
MARTXOAK 2	19:00	LETAGIN + THE CLAYTON
MARTXOAK 10	19:00	SHIL BEDI
APIRILAK 19	19:00	NI HIL + IKARASS
APIRILAK 28	19:00	PELAX

Apirilera bitartean programatu dituen ekitaldien berri eman du Burrunda Faktoria Kultur Elkarteak. Hamar ekitaldi guztira. Musika eskaintza da nagusi, askotarikoa, baina bestelako ekitaldiak ere badira tartean: ipuin kontaketa eta eskulan saioa, dokumental emanaldia, pailazo ikuskizuna...

BONUA

Kontzertuetarako bonua (30€, murriztua 15€) ere atera dute; bonuak kontzertu guztietarako sarrera bermatzen du, eta merkeago. Denboraldiko azken kontzertua (Pelax) Aloñako Aloñako Igoerako lantaldearekin batera antolatu dute.

Bestalde, *Burrundaraka* fanzinearen 2. zenbakia ere banatuko dute herriko etxeetan. Hurrengo hilabeteetan Oñatira etorriko diren musika talde eta bestelako artistei buruzko informazioa eta herritar ezberdinek egindako gomedioak ere aurkituko ditugu bertan.



Burrundaraka fanzinearen 2. zenbakia

OTSAILEKO EKITALDIAK

Otsailak 14, 19:00

'Punkaren beste aldea' dokumentalaren emanaldia.

Otsailak 17, 19:00

'Ziraun' eta 'Habi' taldeen kontzertua (8/3€).

Otsailak 18, 19:00

'Sara Zozaya' ren kontzertua (5/3€)

Otsailak 25, 17:00

'Ekaintxou' ren *Slapstik* ikuskizuna.

Sarrerak (5€) Mizken eta Txokolateixan salgai, otsailaren 5etik aurrera (2 urte arteko haurrentzat dohainik izango da).



oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



ANTZERKIA

OTSAILAK 4 / 19:00

'Ni eta nitarrak'

Iholdi Beristain antzezlearen eskutik (3€/8€). [Antixena Gaztetxea](#)

DOKUMENTALAK

OTSAILAK 14 / 19:00

'Punkaren beste aldea'

Perlata taldeko Jaione Martinez eta Maialen Oleagaren dokumentala. [Gaztetxea](#)

EKITALDI BEREZIAK

OTSAILAK 3 / Egun osoan

ELKARTASUN EGUNA

Oñatiko Ernaik antolatuta. Goizean mural margoketa, bazkaria, ostean presoen aferaren inguruko proiektioak; arratsaldean baflepoteoa, eta iluntzean kontzertuak (Zinez+Belako+ DJ Galtzagorri. [Gaztetxean](#)

HITZALDIA

OTSAILAK 6 / 18:30

'Cultura forestal. Desde dónde venimos y hacia dónde vamos'

Txondorran Bueltan ekimenak antolatuta. Hizlaria: Julio Castañeda. [Kultur etxean](#)

OTSAILAK 7 / 19:00

'Herri akordioetik Hezkuntza Legera. Zer gertatu da? Nondik jo?'

Hizlariak: Olatz Egiguren eta Ikoitz Arrese. [Kultur etxean](#)

OTSAILAK 16 / 19:00

'Breviario de ecología libertaria' liburuaren aurkezpena

Carlos Taibo idazleak bere azken liburua aurkeztuko du. STH taldeak antolatuta. [Kultur etxean](#)

OTSAILAK 20 / 19:00

'Intsektuen gainbehera'

Hizlaria: Unai Ugalde. [Kultur etxean](#)

OTSAILAK 21 / 10:00

'As Bestas, un thriller rural'

Hizlaria: Pedro Saldaña. [Santa Ana](#)

OTSAILAK 21 / 19:00

'Troglobios: esos bichos de las cuevas'

Hizlaria: Carlos Prieto. [Kultur etxean](#)



'PASSPORT' ANTZEZLANA, YLLANA KONPAINIAREN ESKUTIK

OTSAILAK 4, IGANDEA, SANTA ANA ANTZOKIA, 19:00 (10€)

YLLANA konpainiaren PASSPORT antzezlana komikoaz gozatzeko aukera izango dugu otsailaren 4an. Munduan zehar barrea partekatze mugak zeharkatzen dituzten artisten bizimoduan oinarritutako lana da, omenaldi moduko bat. Bidaia horietan sortzen diren pasadizu eta bitxikeria barregarrietan oinarritutako show-a: aduanako arazoak, halamoduzko ostatuak, komunikatzeko zailtasunak... Sarrerak (10€) [www.oñati.eus](#) webgunean.

OTSAILAK 27 / 18:00

'Adinekoentzako nutrizionismoa eta kirola'

Hizlariak: Amaia Diaz de Monasterioguren, nutrizionista, eta Peio Uriarte (POZ zerbitzua). [Pake Leku](#)

OTSAILAK 28 / 10:00

'Debagoieneko trantsizio energetikoa: diagnostikoa eta ahalmena'

Hizlariak: Aritz Ameztegi Elola. [Santa Ana](#)

MARTXOAK 1 / 19:00

'Los límites materiales de la transición energética y digital'

Hizlariak: Jorge Torrubia. [Kultur etxea](#)

KONTZERTUAK

OTSAILAK 3 / 20:00

PETTI

Dohainik [Araozko ostatuan](#)

OTSAILAK 17 / 19:00

ZIRAUN + HABI

Sarrera, 8€/3€ [Antixena Gaztetxean](#)

OTSAILAK 18 / 13:00

MUSIKA BANDA

'Dantza Gunea' emanaldia. Dohainik. Zubikoa pilotalekuan

OTSAILAK 18 / 19:00

SARA ZOZAYA

Sarrera, 5€/3€ [Antixena Gaztetxean](#)

IKASTARO-TAILERRAK

OTSAILAK 3 / 10:00-14:00

KONSTELAZIO FAMILIARRAK

Maria Luisa de Dios adituak gidatuta. Lekua erreserbatzeko deitu: 628212839 [Eltzian](#) (Artez Hazten aretoa)

OTSAILAK 5-6 / 17:00

SOINU ETA ARGI TEKNIKARI TAILERRA

Gaztetxean kontzertu bat ateratzeko oinarritzko gauzak ikasteko. [Antixena gaztetxean](#)

OTSAILAK 7 - MAIATZAK 29

ZIZELKATZE IKASTAROA

Asteazkenetan, 14:45-16:45 eta 17:00-19:00. Irakaslea: Javier Arrieta. Prezioa: 60€ (Bazkideak 50€, langabetuak 40€). Irakaslea: Javier Arrieta. Izen-ematea: zizelkatu@gmail.com. [Eltzian](#)

HAURRENTZAKO KONTUAK ETA ESPERIMENTUAK

Ana Galarragaren eskutik, otsailaren 4an, igandea, Araozko ostatuan (12:00).



EKAINTXOUREN 'SLAPSTIK' IKUSKIZUNA


Otsailaren 25ean, Antixena gaztetxean (17:00). Sarrerak (5€) Mizken eta Txokolateixan. Bi urte arteko haurrak dohainik.



IPUIN KONTAKETA: 'KARABI, KARABA'



Udal liburutegiko 'Ostegun Kontalariak' ekimenaren baitan, 4-5 urteko haurrentzako ipuin kontaketa saioa egongo da otsailaren 29an (Haur liburutegia, 18:00), Ines Bengoaren eskutik. Gonbidapenak hilaren 19tik aurrera (liburutegia@onati.eus / Tel.943716111 / WSP 688732826)



LIBURUTEGIA Hileko gomendioa

Arrakasta zer den jakin nahian abiatu da idazlea, hiztegieta begira eta filosofoek zer dioten irakurri, eta gaien sakontzeko hamaika lagun elkarrizketatu ditu: "Porrotx", Eneko Atxa, Harkaitz Cano, Aizpea Goenaga, Izaro Andrés, Itziar Ituño eta Markel Irizar besteak beste. Edozein irakurlearen interesa pizteko moduko liburua!

ZINEA



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (19:30)
Nagusia: Ostirala (22:00), larunbata (19:30 eta 22:00), igandea (19:30) eta astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta igandea (17:00)

Otsailak 1 - 5

ZINE KLUBA:

Los colonos
NAGUSIAK: Bizkarsoro
HAURRAK: Thabo y el caso del rinoceronte



Otsailak 8 - 12

ZINE KLUBA:

Sobre todo tren
NAGUSIAK: Valle de sombras
HAURRAK: Patrick (Euskaraz)



Otsailak 15 - 19

ZINE KLUBA:

La memoria infinita
NAGUSIAK: La tierra prometida
HAURRAK: El fantasma de Canterville



Otsailak 22 - 26

ZINE KLUBA:

La zona de interés
NAGUSIAK: Negu hurbilak
HAURRAK: ¡Corre, tigre corre!



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
OTSAILAK 7, 8, 16, 17, 18, 26 eta 27.
MARTXOAK 6 eta 7.

GARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
OTSAILAK 1, 9, 10, 11, 19, 20, 28 eta 29.
MARTXOAK 8, 9 eta 10.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
OTSAILAK 2, 3, 4, 12, 13, 21 eta 22.
MARTXOAK 1, 2 eta 3.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
OTSAILAK 5, 6, 14, 15, 23, 24 eta 25.
MARTXOAK 4 eta 5.



MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZA

alokairuan hartu nahi du 2 seme-alabadun familiak. Garbiak eta txukunak dira. Errekomendazioak dituzte. Deitu: 624804598 / 664347798

GARAIEA

alokairuan hartu nahi da Ugarkalde-San Lorentzo inguruan. Deitu: 688663258.

ORTU SAILA SALGAI

Jaumendi azpiko lursailetan kokatuta dagoen ortu saila (200 m²) salgai. Prezioa jeitsi dugu. Interesa duenak: 943782559 / 943780526.

ODOL ATERALDIA

OTSAILAK 16 / 16:30-20:30 MU-ko Enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko: **943007884**

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

Itten bat

>> URRUSULAKO KONTUAK (V)

Andramarixak

Urrusulako jaixak Andramarixak izaten ziran, agostuaren 15ian eta 16xan, eta oraindiok be halaxe izaten jarraitetan dau. Hamabostian meza nagusixa, bola-jokua, antxintxika-karrera — Garaikotik bueltia, eliza onduan hasitta—, konbidauak be etorten ziran etxietara, eta arratsaldian erromerixia soiñujoliarekin. Hamaseixan, berriz, gaba juergan pasau ondoren, auzoko gaztiak etxerik etxe faten ziran errondan soiñujoliarekin; neskatiak etxian egoten ziran, askotan lo artian, eta zalaparta baten ibiltten ziran soiñekua jantzi eta mutilok ikusteko. Gero auzoko hildakuen aldeko mezia egoten zan, eta ondoren erromerixia, dantza eta dantza bi egunetan. Horren kontura, dokumentu zaharretan agerketan da elizako maiorala eta auzoko gaztien arteko liskarren baten kontua be: itxuria danez, usarixo zaharrian txistularixa izaten zan jaixetako animatzaillia eta gaztiak, berriz, soiñujolia eskaketan euen.



Ezkerrian Urrusulako parrokiako Andramariren irudixa.
Eskuman Andramari eguneko Meza Nagusixa

Denpora batian kinttuak edo soldau fan bihar eueiñak izaten ziran organizadore eta preparatibuak egitteko arduria ekuaiñak. Bezperan piñua bota eta harekin eliza ondoko haitzaren onduan musikuandako kioskua gertatu eta inguruak garbiketan zittuain.

Hona hemen auzoko lagun baten testigutzaia:

“Andramari egunian goizetik hasitta etorten zittuan auzotarrak, konbidauak eta kanpuan bizi ziran famelixa-tartekuak. Goiz erdi aldera izaten zuan Meza Nagusixa, eta, ostian, soiñujolia eta tertulixia, trago batzuk hartuaz; gero, berriz, bazkeittera konbidauakin batera. Arratsaldian errosarixua eta, gero, erromerixia. Etorten zittuan inguruko auzo danetatik: Araotz osua (Urrusulatik be faten gintzuan Araotzera: gure amandria zuan Araozkua eta aitta be bai. Trinidadetan Araotzera faten gintzuan konbidau, batzuk Gernetara,



Meza Nagusi osteko aurrezkua

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK

NI
moda

MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40



amandriaren jaixotetxera, eta, beste batzuk, Otalaara, aittarenera; eta Urrusulako Andramarixetan hango jentia etorriko zuan gurera konbidau. Izaten zuan berandu jaixotako bildotsen bat-edo, egoten zuan gordeta Andramarixetarako, eta hola moldaitzen gintzuan jatordu hobatxuagua egitteko). Andramarixetan danak etorten zittuan, baita Zañartu auzokuak be, Urubarri aldekuak be bai, Urrusula garaikuak —honeik, izatez, Aretxabaletako Korueta auzokuak dittuk, baiña Urrusulan egitten xuan bizimodu dana, mezetara, eskolara, lagunak... Aretxabaletan papeleuak-eta, kontribuziñuak pagau eta holako lanak egittera bakarrik—. Koruetatik be etorten zittuan eta geu be faten gintzuan Santiagotan hara. Neskaak

gutxiago etorten zittuan, orduan etxuan samur urteten etxe edo auzo ingurutik. Tabernia Osiñagakuak ifintten xuan eta Goribar auzoko Joxepatxo haizpeian egoten zuan zerbezia, limonadia, ardaua eta tabernako jeneruarekin. Barkillerua be etorten zuan, Lopez baiño lehenagokua, bere potiakin eta potian karameluak, almendrak-eta ekarten zitxuan, eta ruleta bat eukitten xuan haren gaiñian, eta txakurraundixa ifiñi eta parian geldiketan bazan, barkillua emuten xuan. Bigarren egunian auzokuak izaten gintzuan gehixenok.”

Eta jaiegunen gaiñian preguntata, haxe aittatu eben:
“Gu soldadutzara fan arte auzuan ibiltten gintzuan domeketan, eta haxe izaten zuan jaieroko jiria:

▲ Urrusulako auzotarrak eta konbidauak Meza Nagusi ostian. Abadiak: Aitta Garayalde frantziskanua eta Don Ziriako Arriaran, gerra ostian bertako abade izandakua.

domeka arratsaldian hiru eta erdittan-edo errosarixua izaten zuan, eta, haren ondoren, gaziok faten gintzuan Aitzgaiñera. Ha zabalik egoten zuan taberna modura, eta sagardo botillaren bat edo beste eran ondoren, bueltan etorten gintzuan Garaikora, erromerixara. Bixente Osiñagakuak jotzen xuan agoko soiñua eta dantza eta juergia egoten zuan hango larraiñian, illunkara arte. Illunkaran neskaak faten zittuan etxera eta mutillak, berriz, gehixenok barrura jokuan egittera.”



Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiestui Kortabarria
Irakaslea
Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com

www.4sgoiena.com

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Urte berria.
Kolore berria.
Konfiantza bera.



PANTONE

3-1023 TCX

Peach Fuzz

Color del año 2024



Ikus ezazu nola geratzen den 2024ko
kolorea gure sofetan eta etxeko dekorazioan.

amuebladoramondragonessa.com

C/ Zigarrola 1, Arrasate (Gipuzkoa)